

**IRAKASKUNTZA ETA EUSKALGINTZA.** Irakaskuntza eta euskalgintzako hainbat ordezkari Leioako campusean bildu ziren atzo, hezkuntza sistema propioa aldarrikatzeko mobilizazioetan parte hartzeko

Gorane Agirre | BILBO

# Euskal hezkuntza sistemaren alde



JOSU ETXEBARRIOSTE

UEUko Xabier Isasi, Ikastolen Elkarteko Iñaki Etxezarreta, eta Kontseiluko Xabier Mendiguren, atzo Leioan egindako manifestazioan.

ANA EIZAGIRRE (Euskal Herriko Gurasoen Elkarteko lehendakaria)

**«Ikasketa guztiek, unibertsitatekoak barne, bertako gizarteari erantzun behar diote»**



«Guretzat oso garrantzitsua da gure seme-alabek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) eta Batxilergoa

egin ostean, haiekin zer gertatuko den. Ildo horretan, gauza bi aldarrikatzen ditugu, argi eta garbi. Batetik, irakaskuntza prozesu osoan kalitatea bermatu egin behar da; bestetik, derri gorrezkoa da koordinazio bat egotea ikasketa maila guztien artean. Hori bakarrik egin daiteke hemen lege propioak izanik, eta horregatik, Eusko Jaur-laritzak Unibertsitate Lege propio hori aurrera eraman behar du.

Gure ustez, ikasketa guztiek, unibertsitatekoak barne, bertako gizarteari erantzun behar diote, bertako zientziari eta bertako gizabanakoei. Izan ere, etorkizunean gure herriaren beharrei erantzun gaiten gizon

eta emakumeak izan nahi baldin baditugu, dudarik gabe, gaurdanik neurriak hartu behar ditugu.»

IÑAKI ETXEZARRETA (Ikastolen Elkarteko arduraduna)

**«Euskal hezkuntza sistema propioa nahi badugu, unibertsitateak zeregin garrantzitsua du»**



«Ikastolek beti egin izan dute euskal hezkuntza sistema propio baten aldeko defentsa. Hezkuntza sistema ez da bakarrik unibertsitate kanpo dagoena, baizik eta unibertsitatean bertan dagoena ere. Beraz, euskal hezkuntza sistema propio bat nahi baldin badugu, unibertsitateak zeregin garrantzitsua du. Eta horretan, dudarik gabe, momentu honetan PPK martxan jarri nahi duen Unibertsitate Legea helburu horren kontrako da, guztiz. Beraz, ikastolek ezinbestez horren aurrean beren iritzia eta irudia azaldu behar dute, eta horregatik gaude gaur hemen protestan.»

XABIER ISASI (UEUko lehendakaria)

**«Euskal unibertsitatearen aukerak itxi egiten dira Lege honekin»**



«Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) aspaldidanik, sorreratik, euskal unibertsitatearen alde lanean aritu da. Ikusten dugu euskal unibertsitatearen aukerak Unibertsitate Lege Organiko berri honekin itxi egiten direla; hau da, unibertsitate esklusibista proposatzen da. Unibertsitate propioa nahi dugunontzat aukerak murriztu egiten dira, eta eredu itxiagoa, baterakoiagoa edo zentralizatuagoa... ezartzen da. Gu irekitasunaren alde, unibertsitate euskaldunaren alde... aurrera urratsak emateko gaude, eta PPren Legea nolabaiteko traba izan daiteke.»

ALEX MARAÑON (IAko ordezkaria)

**«Alternatiba nazionala, euskalduna eta aurrerakoa garatu behar dugu»**

«Euskal ikasleontzat oso ga-

rrantzitsua da euskal sindikal-gintzarekin batera Unibertsitate Lege honi uko egitea. Euskal sindikatuak eta Ikasle Abertzaleak bakarrak



gara Espainiako Unibertsitate Legeari alternatiba bat aurkezten. Ikasle euskaldunen hizkuntza eta hezkuntza eskubideak aintzat hartzen dituen alternatiba bat eskatzen dugu.

Ildo horretan, aurrera begira oso urrats garrantzitsua da gaurkoa bezalako ekimenak egitea eta bide horretatik lanean jarraitzea. Izan ere, PPren Unibertsitate Legeari uko egitearekin bakarrik ez dugulako ezer konpontzen. Euskaldunok beharrezkoa daukagu alternatiba nazionala, euskalduna, aurrerakoa eta demokratikoa izango dena garatzea.»

IÑAKI ZABALETA (EIREko lehendakaria)

**«Legeak ez du uzten unibertsitateak irakasle elebidunak kontratatzea»**

«Unibertsitate Lege honek irakasle euskaldunak, irakasle ele-

bidunak kontratatzea araz, ofizialki, gaitzetsi egiten du. Ez du



baimentzen, ez du uzten unibertsitateak irakasle euskaldunak, elebidunak, kontratatzea. Eta, jakina, hori izugarritzko kaltea da euskarazko irakaskuntza eta euskarazko unibertsitatea garatu ahal izateko.»

MARIA JESUS FULLAONDO (Sortzen Ikasbatuako arduraduna)

**«Unibertsitate Lege honek ez du irakaskuntza euskalduna bermatzen»**



«Sortzen-Ikasbatuaren ekimen eremua hezkuntza unibertsitarioa ez bada ere, hezkuntzaren ikuspegi global baten barruan kokatzen dugu gure proiektua. Ikuspegi global horretatik abiatuta, ikusten dugu hezkuntzan ezinbestekoak direla ondoko ardatz hauek: sistema propio bat eratzea eta ahalbidetzea; horren barruan irakaskuntza euskalduna bermatu ahal izatea, zero urtetik unibertsitatearen amaiera bitartean, eta hezkuntza berdintzailea izatea. Unibertsitate Lege berri honek ez du ardatz horietako bakar bat bera ere ahalbidetzen. Bestalde, unibertsitatearen edo irakaskuntza sektore guztien autonomia aldarrikatzen dugu.»

XABIER MENDIGUREN (Kontseilua)

**«Legea proposatzen duten moduan euskarak atzera egiteko aukera oro ditu»**



«Oso garbi ikusten dugu kasu honetan Espainiak ezarri nahi duen Unibertsitate Lege berriak guretzat kaltea dakarrela, kalte handia ekarri ere. Guk geure eskubideak, eta guk geure unibertsitatea eskatzen dugu eta aldarrikatzen dugu. Oso garbi ikusten dugu Unibertsitate Lege hau proposatzen duten moduan euskarak atzera egiteko aukera guztiak dituela. Horregatik, guk geure bidea jorratu behar dugu, beti egiten dugun bezalaxe.»